

EBAZPENA, 2026ko MAIATZAREN 14koa, EHuko GERENTEARENA, EHuko TEKNIKARIEN ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ANTZINATASUN OSAGARRIAREN ZENBATEKOA ERREGULARIZATZEKO.

GERTAKARIAK

Lehenengoa. EHuko lan kontratudun TEKAZEL finkoek antzinatasunagatik jaso beharreko osagarriaren taula haien III. lan hitzarmeneko 83. orrian dago jasota, eta hitzarmenarekin batera sartu zen indarrean (UPV/EHuko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan Kontratudun Langileen III. Hitzarmena, 2010eko abenduaren 31koa). Hauxe da:

Lan taldea	Antzinatasuna
I	51,67
II	41,84
III	37,53
IV	30,16
V	26,60

Bigarrena.- 2010eko urtarrilaren 1ean TEKAZEL funtzionarioentzat indarrean zeuden ordainsarien taulen arabera, hauek dira antzinatasun osagarriari dagozkion zenbatekoak:

Lan taldea	Hirurtekoa	Produktibitate osagarria (E)	Urtekoa, guztira
A1	44,65	8,19	723,38
A2	35,73	7,13	585,78
C1	26,84	12,47	525,40
C2	17,94	14,26	422,28
Lanbide taldeak (E)	13,47	15,32	372,42

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. UPV/EHuko gerenteak eskuordetuta dauka ebazpen hau emateko eskumena, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 25eko Ebazpena dela bide (errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehaztekoa, 2025eko otsailaren 19ko EHAA).

Bigarrena.- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen III. Hitzarmenak, 2010eko abenduaren 31koa, 83. orrian zehazten ditu EHuko lan kontratudun TEKAZELen antzinatasun osagarriaren zenbatekoak, 2010eko urtarrilaren 1ean indarrean zeuden ordainsarien taulen arabera.

Beraz, gertakarien ataleko lehen eta bigarren puntuetan aipatutako taulen arabera, III. hitzarmen kolektiboa indarrean sartu zenean –2010eko abenduaren 31n– TEKAZELen

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH2MK4NQE7VTGJABF5IVPCOY	Data / Fecha	25/05/2026 11:03:04
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA / UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO (JAVIER VARONA GUARAS)		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2MK4NQE7VTGJABF5IVPCOY	Orrialdea / Página	1/2



bi kolektiboek (lan kontratadunek eta funtzionarioek) pareko zenbateko bat jaso behar zuten antzintasun osagarriatik.

Hirugarrena. 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, honela dio 109. artikuluko lehen apartatuan:

2. Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

EHU ohartu denez, lan kontratudun TEKAZELen III. hitzarmen kolektiboa indarrean sartu ondoren soldata igoerak egon direnean, lan kontratudun TEKAZELEk zenbateko txikixeagoa jaso dute antzintasunagatik –zehazki 2017az geroztik, orduan antzeman baita lehen soldata diferentzia kontzeptu horri dagokionez–. Alde hori hutsaren hurrengoa zen hasieran, baina EHUK ordainsariak urtez urte igo ahala, handituz joan da justifikaziorik gabe, lan kontratudun TEKAZELen hirurtekoak eguneratzeko erabilitako formularen ondorioz.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa. Agindua ematea EHUKo lan kontratudun TEKAZELEk antzintasunagatik jaso beharreko zenbatekoa erregularizatzeko, TEKAZEL funtzionarioek jasotzen dutenarekin parekatuz. Erregularizazio honen ondoriozko zenbateko berriak 2026ko maiatzeko nominatik hasiko dira ordaintzen, berori barne.

Bigarrena.– Ebazpen hau UPV/EHUREN webgunean argitaratzea.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke administrazioarekiko auzien epaitegietan. Horretarako bi hilabeteko epea dago, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duena: 8. artikulua).

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH2MK4NQE7VTGJABF5IVPCOY	Data / Fecha	25/05/2026 11:03:04
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA / UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO (JAVIER VARONA GUARAS)		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2MK4NQE7VTGJABF5IVPCOY	Orrialdea / Página	2/2

